

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Negozia zabaltzeko, hasiera batean behintzat, diru laguntzak beharko ditugu, nahiz eta gure poltsikotik ere diru kopuru bat jarri beharko dugun. Diru hau garraioa bezalako gauzetan inbertitu beharko dugu. Enpresa indartzen doan heinean, diru kopuru gehiago izango dugu eta ez dugu diru laguntzen beharrik izango.

Gure negozioak ahalik eta garapen zabalena izan dezan, hainbat baliabide beharko ditugu; alde batetik, **baliabide fisikoak**. Hemen komunikazio alorreko tresnak sartuko lirateke, ordenagailua eta telefonoa, hain zuzen. Ordenagailua webgunean aldaketak egiteko eta bertan informazio berria idazteko erabiliko dugu; mugikorra, berriz, bezeroekin, eta aurretik aipatutako publizitate enpresaren artean kontaktuan mantentzeko. Hau lortzeko ez dugu arazorik izango, taldekideek baditugulako etxean egoera onean dauden mugikorrek eta ordenagailuak; beraz, hauek ondo segitzen duten bitartean, ez dugu berririk erosiko. Hau eginez, diru kantitate bat aurreztuko dugu eta beste zerbaitetan gastatzeko aukera izango dugu.

Honetaz aparte, gure negozioa ipintzeko lokal bat beharko dugu, baina honek ere ez digu inolako gasturik suposatuko, gure taldekide baten osabak utziko digulako.

Bestalde, **finantza baliabideak** ere garrantzitsuak dira. Udalari gurekin biltzeko proposamena aurkeztuko diogu, gure helburuen berri eman eta akordio batera iristeko (hau da, guri diru-laguntza bat eskaintzea). Aldi berean, gobernuari eskaera berdina egiteko helburua dugu, laguntzeko prest egongo delakoan baikaude. Azken finean, gure proiektua planetaren egoera hobetzea da, eta, gure ustez, bai gobernuari bai udalari hau egitearekin ados egongo dira, guztientzako komenigarria baita. Hori gutxi balitz, bankuari mailegu bat eskatuko diogu, eta lortutako diru guztiarekin proiektuari hasiera ona emateko prest egongo garelakoan gaude.

Gure proiektua aurrera ateratzeko ezinbestekoa da garraioa izatea, gure produktua bezeroei eraman ahal izateko. Udaneren ibilgailua erabiliko dugu alde batetik bestera ibiltzeko.

Gure enpresaren eskubideek ez digute enbarazurik egingo; izan ere, Eleneren ama abokatua da eta bera arduratuko da kontu honetaz, gobernuarekin eta judizio kontuekin arazorik izan ez dezagun. Beraz, horrelako pertsona bat gure taldean izatea oso positiboa dela deritzogu, abantaila asko eskaini diezazkigukeelako: konfiantza, segurtasuna eta gainera ez digu kosturik suposatuko.

Giza baliabideak oso garrantzitsuak dira: sormena, ezagutza eta gaitasun komertziala. Bakoitzak gaitasun eta abilezia desberdinak ditugunez, oso ondo funtziona dezakegu. Esaterako, Udanez teknikoki gaitasun oso bereziak ditu eta, horregatik, webguneaz eta sare sozialez arduratzeko egokia da. Amalur eta Elenek matematikan ezagutza zabala dutenez, kalkuluek arduratuko dira. Iratik, sozializatzeko erraztasuna duenez, bezeroekin harremanetan jarriko da; azkenik, Eiderrek sormena duenez, diseinuaz

arduratuko da: enpresa ahalik eta deigarriena suerta dadin lortuko du, jende gehiago gerturatu ahal izateko.

Publizitate bideoa egingo digute, gure produktua ezagutarazteko beharrezkoa delako. Horretarako, herriko Gattiken enpresarekin harremanetan jarri gara; beraiek egingo digute bideoa eta ondoren hainbat lekutan txertatzeko aukera izango dugu. Horietako bat telebistan izango da; Eitb kanalean txertatuko digute bideoa, eta beraiekin kontaktuan jartzeko ez dugu arazorik izango, Udaneren ama bertako langilea delako.